

ELKARTEAREN ESTATUTUAK

LEHENENGO KAPITULUA

IZENA

1. artikulua



Elkarteen erregistroan 2004ko abenduaren 13an AS/B/11569/2004 zenbakiz inskribatu zen "Eraberrikuntzan eta ezagutzan adituak diren pertsonen mugikortasuna sustatzeko elkarte/Asociación de apoyo a la movilidad de personas cualificadas en innovación y conocimiento, bizkaia:talent" irabazizkoa ez den ELKARTEAREN estatutu hauek aldatu egin dira, Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legean ezarritakoaren arabera eta Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren arabera, Euskal Autonomi Estatutuaren 9 eta 10.13 artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Elkarte hori Elkarteei buruzko Legezko artikuluei, estatutu hauetan ezarritakoari (Legeari kontrajartzen ez zaizkion bitartean), bertako gobernu-organoek harturiko erabakiei (Legeari edota estatutuei kontrajartzen ez zaizkien bitartean) eta Eusko Jaurlaritzak (izaera ordeztaille hutsa) onetsitako arauzko xedapenei jarraituz arautuko da.

LORTU NAHI DITUEN HELBURUAK

2. artikulua.-

Elkarte honen helburua da berrikuntza eta ezagutzaren prozesuetan gaitasuna duten pertsonak erakartzea eta, erakarri ondoren, bertan mantentzeko Bizkaian eratu behar diren baldintzak ezartzea da. Bada, helburu hori lortzeko, aurrez legez ezarrita dauden beharkizunak betez, ondoko jarduerak egingo dira:

1. Bizkaia sustatzea, zertarako-eta interes estrategikoko arloetan gure lurraldetik kanpo bizi diren profesional eta ikertzaileek Bizkaia lan-destino moduan ikus dezaten.
2. Elkarte bazkide edo ez bazkideei atzerrian bizi diren zein bizi ez diren pertsona gaitu eta adituen identifikazioa, irispidea eta inkorporazioa errazteko zerbitzuak ematea.
3. Ireki diren Praktika Erkidegoak alderdi interesatu guztietara bultzatzea.

4. Atzerrian bizi diren eta Bizkaian ezartzeko interesa duten profesional eta ikertzaileen lekualdaketa eta egokitzapena errazteko zerbitzuak ematea.
5. Elkartearen helburuari lotuta dauden azterlanak egitea.
6. Beste erakunde publiko eta pribatu batzuekin lankidetzan jardutea pertsona gaitu eta aditu horien mugikortasuna kudeatzeari buruzko ekimenetan.



Honen aurreko atalean deskribatu diren jardura horiek guztiak gorabehera Elkarteak, bere helburu eta xede horiek betetzeko, ondokoak egin ditzake:

- Era guztietako jardura ekonomikoak egitea, baldin eta bere helburuetara iristeko badira edo helburu horretarako bitartekoak erakartzeko.
- Bitartekoak gorabehera era guztietako ondasunak eskuratzea, edukitzea eta besterentzea, horien titulua kontuan hartu gabe. Halaber, era guztietako ekintzak eta kontratuak egitea.
- Legeetan eta bere estatutuetan ezarrita dagoena betez, era guztietako ekintzak burutzea.

Jardura horiek guztiak Elkarteak bidezko joko dituen eretan burutuko dira eta zilegi da horietan beste erakunde edo izaki batzuen esku hartzea gertatzea, beti ere kasu jakin bakoitzean aplikagarria izango den arautegi orokor eta fiskala betez eskatuko diren beharkizunak betez.

SOZietateAREN EGOITZA

3. artikulua.- Elkarte honetako helbide nagusia honako hauxe izango da: Bizkaiko Parke Teknologikoa, Laga Bidea, 804. eraikina, 300. modulua, Derio (Bizkaia).

Elkarteak beste lokal batzuk ere eduki ahal izango ditu autonomia-erkidegoan bertan, Batzar Nagusiak halaxe erabakitzen duenean.

Udalerriz aldatu ezean, elkaratearen eta gainerako lokalen helbide-aldaketak Zuzendaritza Batzordeak berak ebatziko ditu, eta helbide berria zein den jakinarazi beharko dio Elkartearen Erregistroari. Gainerako suposamenduetan, ordea, estatutuak aldatu beharko dira.

LURRALDE EREMUJA

4. artikulua.- Elkarteak batez ere Bizkaiko Lurralde Historikoan garatuko ditu bere jarduerak eta funtzioak.

IRAUPENA ETA IZAERA DEMOKRATIKOA

5. artikulua.- Elkartea mugaegunik gabe eratzen da, eta Elkartea desegin daiteke bakarrik Aparteko Biltzar Nagusiak harturiko erabakiaren bidez, VI. kapituluan ezarritakoaren arabera edo Legean ezarritako beste edozein zergatiren ondorioz.



Elkartearen barne antolakuntza eta funtzionamendua demokratikoak izango dira, aniztasuna erabat errespetatuz. Zuzenbide osoz deusezak izango dira, elkartezeko oinarritzko eskubidearen edozein alderdi baztertzen duten hitzarmenak, estatutuen xedapenak eta akordioak.

BIGARREN KAPITULUA

GOBERNU ETA ADMINISTRAZIO ORGANOAK

6. artikulua.- Elkartearen gobernua eta administrazioa honako organo hauek (elkargoaren organoak) edukiko dituzte:

- Kideen Biltzar Nagusia, gorengo organotzat.
- Zuzendaritza Batzordea, zuzendaritza iraunkorreko organotzat (elkargoaren organoa).

Berariaz barruko jardunbideari dagokionez organo hauen jardunbidea araudien eta bere estatutuen garapenerako era baliagarrian hartu diren erabakien bitartez eraendu daiteke.

BILTZAR NAGUSIA

7. artikulua.- Biltzar Nagusia kide guztiek osatzen dute eta kide horien guztien nahia adierazten duen organoa da. Ohiko eta aparteko bilkuretan bilduko da.
8. artikulua.- Biltzar Nagusirako deialdia ohiko bilkuran egingo da, gutxienez urtean behin, ekitaldiko lehen sei hilekoan, honako hauek onesteko: Elkartearen jarduketa-plan orokorra, azken ekitaldiko urteko kontuak eta ekitaldi berriko aurrekontua baita Zuzendaritza Batzordearen kudeaketa ere, eta horrek Biltzarraren arabera eta berorren kontrolpean jardun beharko du beti.
9. artikulua.- Aurreko artikuluan ezarritakoaren kalterik gabe, honako honi buruzko erabakiak Biltzar Nagusiaren eskumenekoak izango dira:

1. Urteko kontuak eta hurrengo ekitaldiko aurrekontua aztertzea eta onartzea.
2. Estatutuak aldatzea.
3. Elkartea desagitea.
4. Elkarteburua, idazkaria, diruzaina eta, egon balego, kide anitzeko gobernu-organoko gainerako kideak aukeratzea, kargutik kentzea, ikuskatzea eta kontrolatzea.
5. Beste elkarte batzuekin federazio eta konfederazio egintzak egitea edo elkarte horietatik alde egitea.
6. Ondasun higiezinaren erabilera edo besterenketa onartzea.
7. Hala badagokio, gobernu-organoko kideei ordaintzeko erabakia hartzea.
8. Ohiko edo ezohiko kuotak zehaztea. Hala ere, Batzar Nagusiak ahalmen hori eskuordetu ahal izango dio gobernu-organoari, berariazko erabakiaren bitartez.
9. Bazkideak behin betiko banatzeko erabakia hartzea.
10. Barne Araubidearen Araudia onartzea, ezartzea eta garatzea.
11. Estatutuen arabera Batzar Nagusiak duen beste edozein eskumen erabiltzea.

10. artikulua.



Biltzar Nagusia, gainera, aparteko biltzarrean bilduko da, bilera hori Zuzendaritza Batzordearen ekimenez erabakitakoan, edo kideen erdiak eskatzen duenean; bileraren zergatiak eta helburuak adierazi beharko dira, eta, beti, ondoko gai hauen buruzko gauzak jakiteko edo erabakiak hartzeko denean:

- a) Estatutuen aldarazpena.
- b) Elkartea desagitea.

11. artikulua.-

Biltzar Nagusiak egiteko deialdiak ohikoak eta apartekoak izango dira. Deialdiak beti idatziz egingo dira eta idazkian biltzarra egingo den tokia, eguna eta ordua azalduko dira, eta baita aztergaien zerrenda ere. Deialdiaren eta Biltzarra lehen deialdian egiteko adierazi den egunaren artean gutxienez hamar eguneko tartea egongo da; halaber, idazki horretan bidezkoa balitz Biltzar Nagusi hori bigarren deialdian egiteko eguna adierazi daiteke. Horrelakoetan bilera baten era bestearen artean gutxienez ordu erdiko tartea egongo da.

Baldin eta jakinazpenean ez bada bigarren deialdi horren data aurreikusi, lehen deialdiaren data baino bost egun arinago egin beharko da.

12. artikulua.-

Biltzar Nagusiak, hala ohikoak nola apartekoak, legez eratuta geldituko dira, lehenengo deialdian, bertan kideen erdiak eta bat gehiago (edo horien ordezkariak) biltzen direnean, eta, bigarren deialdian bildutako kide kopurua edozein izan arren.

Kideek beste kideren bati eman ahal diote ordezkaritza, Biltzar Nagusira joateko. Ordezkaritza hori idatziz emango da eta idazkia Elkarteko idazkariari emango zaio, gutxienez bilkura egin baino apur bat lehenago. Kideek postaz edo sinaduraren egiazkotasuna benetaketzen duen beste

formula baten bidez bidali ahal izango dute ordezkaritza egiaztatzen duen idazkia.

13. artikulua.- Biltzar Nagusirako erabakiak biltzarrera joandakoen botoen gehiengoz hartuko dira (bertaratuak eta ordezkarien bidez). Kide sortzaile eta oso bakoitzak boto bat edukiko du, 27. artikuluan zehaztu den bezala.

Aurreko paragrafoan ezarri dena gorabehera beti izango da beharrezkoa kideen, bertaratuen eta eskuordetuen, gehiengo osoaren aldeko botoa, Aparteko Biltzar Nagusian emandakoa, estatutuak aldarazteko eta Elkartea desagiteko.

Biltzar Nagusian hartzen diren erabakiak idatziz jakinaraziko zaizkie kideei eta aktan jasoko dira. Azken hau, gainera, idazkariak eta buruak berretsi eta dagokion Liburuan transkribitu beharko da.

ZUZENDARITZA BATZORDEA



Zuzendaritza Batzordeak ez ditu 13 kide baino gehiago edukiko, eta, euren artean, honako kargu hauek aukeratuko dira: elkarteburua, elkarteburuordea, idazkari nagusia eta diruzaina.

Elkartea eratzean, Bizkaiko Foru Aldundia da elkarteburua.

Zuzendaritza Batzordea elkarteko gobernu, administrazio eta ordezkaritza organoa izango da, eta elkartearen kudeaketaren kontrol zein zuzendaritzarako beharrezkoak diren eskumen guztiak izango ditu, sorrerako helburuak betetzeko orduan.

Gutxienez, urtean birritan batzartu beharko dira, sei hilean behin, baita elkarteko jardueren garapen onari begira beharrezkoa den guztietan ere.

15. artikulua.- Zuzendaritza Batzordea osatzen duten kideak Biltzar Nagusiak aukeratuko ditu, eta lau urteko iraupena izango dute, horrek kasuan kasuko kargua berariaz ezeztatu ezean, eta hautapena behin eta berriro egin daiteke.

16. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kidea izateko, honako baldintza hauek bete behar dira:

- a) Elkarteko kide sortzaile edo osoa izatea.
- b) Adin nagusikoa edo bere kontura bizi den adin txikikoa izatea, eta eskubide zibil guztiak edukitzea.

17. artikulua.- Elkarteburu, elkarteburuorde, idazkari nagusi eta diruzainaren karguak Biltzar Nagusiak hautatuko ditu bere kideen artean, 14. artikuluan ezarri dena gorabehera

Karguak onartzen direnean edo kargu hori betetzen denean hartuko dira.

Zuzendaritza Batzordeko karguen tutularrek doan egingo dute lan hori, jarduketa horren ondorioz inolako saririk sortu gabe; hala eta guztiz ere Biltzar Nagusiak sarien eta gastuen ordainketa ezartzeko eskumena dauka.

18. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kideek kargua utziko dute, honako kasu hauetan:

- a) Agintaldiaren epea amaitzea.
- b) Dimititzea.
- c) Kide sortzaile edo kide oso izateari uztea edo ezintasunean sartzea.
- d) Biltzar Nagusiak erabakitakoa ezezte, hain zuzen ere honako estatutu hauen 15. artikuluan ezarri denaren arabera.
- e) Kide sortzaile edo oso den elkarteak desegitea edo hiltzea.

Baldin eta Zuzendaritza Batzordeko kide batek bere lekua uzten badu eta horrek kargua badu batzorde horretan eta azken lau kasu horien barruan badago, Zuzendaritza Batzordeak bidezko izendapena egingo du kargu huts hori hornitzeko.

Organo honen osaketan gertatuko diren aldarazpen guztiak Elkartearen Erregistroari jakinaraziko zaizkio.



19. artikulua.-

Zuzendaritza Batzordearen eginkizunak honako hauek dira:

- a) Elkartearen ohiko kudeaketa zuzentzea, Biltzar Nagusiak ezarritako jarraibideen arabera eta horren kontrolpean.
- b) Barruko Araubideari buruzko Araudia eta garapenerako gainerako arauak egitea.
- c) Estatutuak, Barruko Araubideari buruzko Araudia eta elkartearen berezko bestelako arauak interpretatzea.
- d) Elkarateak garatu beharreko jarduerak programatzea.
- e) Biltzar Nagusiaren gastu eta sarreraren urteko aurrekontua aurkeztea, horrek onspena eman diezaion; halaber, biltzar horretan aurreko urteko kontuak aurkeztea.
- f) Biltzar Nagusiaren bilaren aztergaiaren zerrenda egitea. Halaber, ohiko eta aparteko biltzar nagusien deialdiak erabakitzea.
- g) Kide osoen sarrera eskabideak onestea edo, hala denean, horiei gaitziritzea.
- h) Kideek egingo dituzten proposamen edo iradokizunei jaramon egitea eta horiei buruzko neurri egokiak hartzea.
- i) Zuzendari gerentea hautatzea eta kontratatzea.
- j) Bazkideen urteko kuoten zenbatekoa adieraztea
- k) Biltzar Nagusiari berariaz eratziki gabeko beste edozein.

20. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeak elkarteak, edo, hala denean, elkarteak ezarritako beste aldi egingo ditu bilkurak (bai berenez edo bai edozein kide eskatuta). Bilkuretako mahaiburua elkarteak izango da eta, hori egon ezean, elkarteak. Bata eta bestea ez

daudenean mahaiburua Batzordearen barruan adinik handiena duen kidea izango da.

Zuzendaritza Batzordearen biltzarretarako deialdia idatziz egingo da, biltzarra egin baino hiru egun lehenago gutxienez.

Zuzendaritza Batzordeak hartzen dituen erabakiak baliodunak izateko bertaturiko kideen botoen gehiengoa behar da. Halaber, derrigorrezkoa da gutxienez kideen erdia bertan egotea.

Idazkariak bileren akta egingo du. Akta horiek bidezko Liburuan transkribatuko dira.

Zuzendaritza Batzordeak, eskuordetzaren bidez, batzordekideek eurek osatutako lantalde betearazleak. Era berean, egokia dela uste duenean, Zuzendaritza Batzordekoak ez diren beste teknikari edo aholkulari batzuen partaidetza ere ezarri ahal izango du. Gainera, teknikari edo aholkulari horien zeregina aholkularitza eskaintzea izango denez, ez dute erabakitzeke, betearazteko eta ordezkatzeko inolako ahalmenik edukiko.

Batzorde bete arazle horiek Zuzendaritza Batzordea eskuordetuko dute nork bere lanaren esparruan. Batzorde horien eraketa eta horien jardunbidea Zuzendaritza Batzordearen jardunbidearen erakoak izango dira eta horietariko bakoitzerako koordinatzailea izendatuko da.



HERRI ADMINISTRAZIO
ETA JUSTIZIA SAILA
Elkarteen Erregistroa
DEPARTAMENTO DE ADMINISTRACIÓN
PÚBLICA Y JUSTICIA
Registro de Asociaciones

ELKARTEBURUA

PERTSONA BAKARREKO ORGANOAK

21. artikulua.- Elkarteburuak Elkartearen ordezkaritza legala bereganatzen du.

22. artikulua.- Elkarteburuak berariaz Zuzendaritza Batzorderenak edo Biltzar Nagusiarenak ez diren ahalmen guztiak edukiko ditu, batez ere honako hauek:

- Zuzendaritza Batzordearen eta Biltzar Nagusiaren bileren deialdiak egitea eta bilera horiek bukatutzat jotzea, baita bata eta bestearen eztabaidak zuzentzea ere.
- Botazioetan berdinketa gertatu den kasuetan, kalitate-botoaren bidez ebaztea.
- Zuzendaritza Batzordeari Elkartearen Jarduera-Plana proposatzea, horren atazak sustatuz eta zuzenduz.
- Zuzendari gerentearentzat ezarri diren mugak gainditzeko dituzten ordainketak agintzea.
- Presaz sortzen diren arazoak ebaztea, horrelakoetan egingo duen lehen bileran Zuzendaritza Batzordeari jakinaraziz.
- Zuzendari-kudeatzailetzaren funtzioak betetzea, zuzendari-kudeatzaileak aldi batez edo behin betiko etortzeari uzten badio.

ELKARTEBURUORDEA

23. artikulua.- Elkarteburuordeak elkarteburua laguntzeko funtzioak burutu behar ditu eta baldin eta horrek ezin badu bere kargua bete, aldi baterako zein behin betiko, ordeztu egingo du harik-eta kargu hori betetzeko izendapen berria egin arte. Halaber, berriaz elkarteburuak elkarteburuordeari eskuordetuko dizkion ahalmenak izango ditu.

IDAZKARIA

24. artikulua.- Idazkariaren lan zehatzak izango dira sarrera-eskabideak jaso nahiz tramitatzea, kideen fitxategia zein erregistro-liburua eguneratzea eta aktaliburua idatzi eta zaintzea.

Era berean, elkarteen arloan indarrean dauden lege-xedapenak bete egiten direla bermatuko du, Elkarteen dokumentazio ofiziala zainduta; gainera, Elkarteen liburuen nahiz artxiboen edukia ziurtatuko du, eta azkenik, Zuzendaritza Batzordeko kideak izendatzeari eta egoitza soziala aldatzeari buruzko jakinarazpenak agintari eskudunari bidaliko dizkio.



Diruzainak Elkarteen kudeaketa ekonomikoa gauzatuko du, osorik eta Zuzendaritza Batzordeak adieraziko dizkion arauak betez. Horrela, adibidez, egindako diru-sarrerak nahiz gastuak jakinaraziko ditu, diru-sarreraren zein gastuen urteroko aurrekontua formalizatuko du eta aurreko urteko kontuen egoera jakinaraziko du, eta hori guztia Zuzendaritza Batzordeari aurkeztuko dio, horrek Biltzar Nagusiaren oniritzipean jartzeko

ZUZENDARI GERENTEA

26. artikulua.- Hona hemen zuzendari gerentearen eginkizunak, elkarteko beste organo batzuek edo organoetako karguek dituztenei kalterik egin gabe::
- Zuzendaritza Batzordeak hartu dituen erabaki eta irizpideak betearaztea.
 - Elkartean egon dauden zerbitzuak zuzentzea, elkarteen helburuak erarik egokienean lortzeko beharko diren antolaketa-funtzio guztiak burutuz. Horien barruan sartzen dira zerbitzu berrien garapena edo egon dauden zerbitzuen zabalkuntza edo aldaketa.
 - Elkarteen helburuekin bat proiektuak, azterlanak eta zerbitzuak kontratatzea bidezko arauetan hizpatuko diren baldintzak betez.
 - Ekitaldi bakoitzean onespina jaso ondoren Elkartea egin ditzakeen jarduketa-egitarauak prestatzea, proposatzea eta zuzentzea.
 - Aurrekontuen muga barruan mantenduz bidezko lankidetzak, laguntza eta eskuraketa kontratuak egitea.

- f) Jarduera eta zerbitzu guztien kontabilitate orokorra eta osagarria antolatzea, eta baita kobrantza eta ordainketen mekanika ere. Jasoagiri eta gainerako antzeko dokumentuak negoziatu edo ken ditzake berariaz ondore horretarako ezarriko diren mugekin.
- g) Elkartearekin harremanak dituzten pertsona guztien izendapenak eta horien sariak izenpetzea, horiekin egingo diren kontratu motak erabakitzea eta baita horien lanak bereiztea eta jarduerak antolatzea eta horien araubidea ezartzea ere.
- h) Elkartearen ordainketak agintzea eta horrek banku, aurrezki kutxa edo gainerako kreditu erakundetan dituen kontuak zaintzea, beti ere urtero Zuzendaritza Batzordearen erabakiaren bidez ezarriko zaizkion muga barruan.
- i) Elkarteko aurrekontuak prestatzea eta Zuzendaritza Batzordeari aurkeztea.
- j) Elkartea eskuordetzea honek herri botere, izaki, erakunde, korporazio eta era guztietako pertsona juridiko edo naturalekin dituen harremanetan, beti ere elkarteburuari esleitu zaizkion funtzioak gorabehera.

Zuzendari gerentea Zuzendaritza Batzordeko kidea ez denez, bertako bileretara joango da, baina ez du botorik edukiko, hitza, besterik ez.

Zuzendari-kudeatzailea ez badator, edo ezintasun kasuan (aldi baterako nahiz behin betiko), izendapen berria egin arte, haren funtzioak lehendakariak beteko ditu, eta lehendakaria ezean, lehendakariordeak egingo du.

HIRUGARREN KAPITULUA

KIDEAK: ONARTZEKO BEHARKIZUNAK ETA PROZEDURA; KIDE MOTAK

27. artikulua.- Kideak sortzaileak, osoak eta laguntzaileak izan daitezke.

Kide sortzaileak dira Elkartearen helburuekin era aktiboan bat egiten duten pertsona juridikoak eta elkarte horren sorkuntzan eta jaiotze prozesuan esku hartze zuzena dutenak.

Osoko kideak dira Elkartearen helburuekin era aktiboan bat egiten duten pertsona juridikoak, baina elkarte horren sorkuntzan eta jaiotze prozesuan kide sortzaileen gunekoak izan ez direnak. Modalitate honetan, 22 bazkide egongo dira, gehienez ere.

Kide laguntzaileak dira jarraian merezimenduzko jarduketak burutuko dituzten pertsona fisikoak edo juridikoak, ekintza horiek Elkartearen helburuetara iristen laguntzen baldin badute.

Ez bazkideak ezta elkartean dituzten ordezkariak ere ezin izango dira bertako langileak izan inoiz.

28. artikulua.- Elkarteko osoko kide izan nahi dutenek idatziz egin behar dute eskabidea, idazkariari zuzenduta, eta ondoko dokumentu hauek aurkeztu behar dituzte:

- Elkartea eraentzeko Estatutuen kopia.
- Eskumenak dituen erakundearen ziurtagiria, erregistro egokian inskribatuta dagoela benetakotzen duena.
- Bazkide bihurtzeko erabakiaren ziurtagiria eta Elkarteko Estatutuak beteko direla egiaztatzen duena.

Elkarteburuak Zuzendaritza Batzordeari emango dio horren berri eta honek onartzea edo baztertzea erabakiko du. Erabaki horren aurkako errekurtoa aurkez daiteke Biltzar Nagusian.

29. artikulua.- Elkarteko kide laguntzaile izan nahi dutenek idatziz eskatu behar dute, hau ere idazkariari zuzenduta egongo den idazkiaren bidez, eta ondoko dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte:

- Pertsona juridikoa baldin bada, 28. artikuluan ezarri diren berberak
- Pertsona fisikoa baldin bada, bidezko eskabidea bete behar du, gehi eskatuko zaion dokumentazio bidezkotzailea.

Elkarteburuak Zuzendaritza Batzordeari emango dio horren berri eta honek onartzea edo baztertzea ebatziko du. Erabaki horren aurkako errekurtoa aurkez daiteke Biltzar Nagusian.

KIDEEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

30. artikulua.- Kide laguntzaileek honexetarako eskubidea izango dute:

- Biltzar Nagusietara joatea, hizpidez baina hautespiderik gabe.
- Indarreko legerian ezarrita dagoen kideen fitxategian azaltzea eta, Elkartek horrelakorik badauka, horren enblema edo ikurra erabiltzea.
- Estatutuen eta, horrelakorik balego, Barruko Araubideari buruzko Araudiaren ale bat edukitzea eta zuzendaritzako organoetan idazkiak eta kexak aurkeztea.
- Sozietatearen gizarte ekitaldietan esku hartzea eta kide guztientzat diren elementu erkideak erabiltzea, hain zuzen ere kasu bakoitzerako Zuzendaritza Batzordeak adieraziko duen eran.
- Disziplinazko neurriak hartu baino lehen, esan beharrekoa esatea, eta halako neurrien eragileei buruzko jakinarazpena jasotzea; neurriak kidetzat izandako betebeharren urraketan oinarrituta soilik egon daitezke.

31. artikulua.- Kide sortzaileek eta osoko kideek ondoko eskubideak dituzte:

- Elkarteei buruzko Legearen edo estatutuen aurkako erabakiak eta jarduketak aurkaratzea, egutegiko hogeita hamar eguneko epean, salatzaileak aurkaraturiko erabakia ezagutu duen egunetik zenbatzen hasita.

- 2) Elkarteko gainerako kide guztien identitatea, diru-sarreraren nahiz gastuen egoera eta Elkartearen jardueraren garapena edozein unetan jakitea.
- 3) Biltzar Nagusietan hitz egiteko eta botoa emateko eskubidea erabiltzea, eta horretarako, bere ordezkaritza beste kide sortzaile edo osoko kide batzuei eman ahal izango diete.
- 4) Estatutu hauetan ezarritakoaren arabera, Elkarteko zuzendaritza-organoetan parte hartzea, eta horietarako hauteslea eta hautetsia izatea.
- 5) Indarreko legerian jasotako kideen fitxategian agertzea eta Elkartearen enblema edo ikurra erabiltzea, halakorik egonez gero.
- 6) Estatutuen eta, horrelakorik balego, Barruko Araubideari buruzko Araudiaren ale bat edukitzea eta zuzendaritzako organoetan idazkiak eta kexak aurkeztea.
- 7) Sozietatearen gizarte ekitaldietan esku hartzea eta kide guztientzat diren elementu erkideak erabiltzea, hain zuzen ere kasu bakoitzerako Zuzendaritza Batzordeak adieraziko duen eran.
- 8) Disziplinazko neurriak hartu baino lehen, esan beharrekoa esatea, eta halako neurrien eragileei buruzko jakinarazpena jasotzea; neurriok kideentzat izandako betebeharren urraketan oinarrituta soilik egon daitezke.
- 9) Edozein unetan baja hartzea, hartutako eta bete gabeko konpromisoak kalterik egin gabe

32. artikulua.

Kideen betebeharrak dira:

- a) Partaidetza aktiboa izatea, Elkartearen helburuak bete ahal izateko.
- b) Estatutu hauek eta Elkarteko zuzendaritza-organoek era baliodunetan harturiko erabakiak onartzea eta betetzea
- c) Pertsona juridikoen kasuan horiek eskuordea izendatu beharko dute, eta baita eskuorde horren ordezkoa ere.
- d) Osagarri moduan kide sortzaileek eta osoko kideek urteroko aldiroko kuota bat ordainduko dute gastuei aurre egiteko. Zuzendaritza Batzordeak urtero ezarriko du ordaindu beharko den kuota horren zenbatekoa, hala kide sortzaileentzat nola osoko kideentzat.

ZEHAPEN ARAUBIDEA

33. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeak zehatu egingo ditu kideak, Biltzar Nagusiaren edo Zuzendaritza Batzordearen estatutuak edo erabakiak behin baino gehiagotan urratzen dituztenean.

Zehapenen barruan, eskubideak 15 egunetik hilabetera arte etetea sar daiteke, baita kidetasuna behin betiko galtzea ere, 35. artikulutik 38. artikulua ezarritakoaren arabera.

Horretarako, Elkarteburutzak ikerketa bat irekitzeko erabakia har dezake, zehatzeko moduko jokabideak argitu ahal izateko. Jarduketak idazkaritzak gauzatuko ditu, eta horrek bidezko neurriak hartzeko proposamena egingo

dio Zuzendaritza Batzordeari. Zehapenak Zuzendaritza Batzordeak soilik ezarriko ditu, eta, hori baino lehen, interesatuak esan beharrekoa entzungo du.

Betiere arrazoitua izango den erabaki honen aurka, errekurtsua jarri ahal izango da Biltzar Nagusian, 31.1. artikuluan ezarri diren ekintzak gorabehera.

KIDETASUNA GALTZEA

34. artikulua.- Kidetasuna honako kasu hauetan galduko da:

1. Kidea hiltzea (edo, pertsona juridikoen kasuan, desegitea gertatu delako).
2. Nahita galtzea.
3. Zuzendaritza Batzordeak ezarritako zehapenaren eraginez galtzea, honako hau gertatzen denean: Estatutu hauetatik, Biltzar Nagusiak edo Zuzendaritza Batzordeak harturiko erabakietatik sorturiko betebeharrak era larrian, behin eta berriro eta nahita urratzea.

35. artikulua.-

Kideren bat aurreko artikuluan aipaturiko azken egoera horretan sartuz gero, Elkarteburutzak aurretiazko eginbideak gauzatzeko eskabidea egingo dio idazkaritzari, informazio egokia lortu ahal izateko; informazio hori aztertu ondoren, Elkarteburutzak jarduketak artxibatzeak agindua eman, zehapen-espediente hasi (33. artikuluan ezarri den prozedurari jarraituz) edo kidetasuna galtzeko espediente irekiko du.



Azken kasu horretan, gertaerak egiaztatu ondoren, idazkariak idazkia igorriko dio interesatuari; bertan, egotzitako karguak jakinaraziko zaizkio, eta interesatuak bidezko alegazio guztiak egin ahal izango ditu, hamabost eguneko epean; aldi hori igaro ondoren, gaia Zuzendaritza Batzordearen lehenengo bilkuran aztertuko da, eta Batzordeak bidezko erabakia hartuko du, batzordekideen 2/3ko quorumarekin.

36. artikulua.-

Kidetasuna galtzeko erabakia interesatuari jakinaraziko zaio; gainera, jakitera emango zaio horren aurkako errekurtsua aurkezteko eskubidea duela, egiten den lehenengo Aparteko Biltzar Nagusian. Bilkura hori ez bada hiru hileko epearen barruan berariaz deituko da ondore horretarako. Bien bitartean, Elkarteburutzak kideztat dituen eskubide guztiak kendu ahal izango dizkio, eta, Zuzendaritza Batzordeko kidea izanez gero, kargua utzi beharra ezarri ahal izango dio.

Elkartetik bereizteko espediente hori Biltzar Nagusira iristen bada idazkariak espediente horren laburpena egingo dio, zertarako-eta Zuzendaritza Batzordeak erruztatuak aurkeztu duen idazkia aurkez diezaion Biltzar Nagusiari eta gertaerei buruzko informazio egokia emateko, horrela Biltzarrak bidezko erabakia hartzeko aukera izan dezan.

37. artikulua.- Kidetasuna galtzeko erabakia arrazoitua izango da beti, eta interesatuari jakinarazi beharko zaio; horrek auzitegiara jo dezake, berari dagokion eskubidea erabiliz, erabakia legearen edo estatutuen edo horien emaitzako araudi eta arauen aurkakoa dela uste izanez gero.
38. artikulua.- Kide bati Elkarteko kidetasuna galdu duela jakinaraztean (kidetasun hori nahita edo zehapenen baten ondorioz galdutakoa denean), Elkartearrekiko betetzeke dituen betebeharrak guztiak betetzeko eskubidea egingo zaio.

LAUGARREN KAPITULUA

FUNDAZIO ONDAREA ETA AURREKONTU ARAUBIDEA

39. artikulua.- Elkarreak, bere helburuetara iristeko, ez du behar hasierako sorkuntza-ondaririk.

Hori gorabehera, Elkarrearen jarduerak aurrera egin ahala, Elkarrearen ondarean era guztietako ondasunak eta eskubideak egon daitezke, balorazio ekonomikoa ere izan dezaketenak.

40. artikulua.-

Elkarreak jarduera sozialak garatzeko aurreikusita dituen baliabideak honako hauek dira:

- Zuzendaritza Batzordeak kide sortzaileentzat eta osoko kideentzat adierazitako aldiroko urteko kuotak. Euren zenbatekoa Batzar Nagusiak berak zehaztuko du, berariazko erabakiaren bidez ahalmen hori Zuzendaritza Batzordeari ematen ez badio
- Kideek egin beharreko aparteko ekarpenak eta/edo ordaindu beharreko kuotak.
- Berari dagozkion ondasunen eta eskubideen produktuak, baita lege z jasoz ditzakeen diru-laguntzak, legatuak eta dohaintzak.
- Elkarreak lortzen dituen diru-sarrerak, Zuzendaritza Batzordeak estatutuen helburuen barruan egiten dituen zilegizko jardueren bidezkoak.

Kideen aparteko ekarpenak bi eratakoak izan daitezke:

- Kide guztiek aparteko ekarpena egitea erabakitzen dutenean.
- Kideren batek, une horretan gainerakoek aparteko ekarpena egitea edo ez egitea gorabehera, aparteko ekarpena egiten duenean.

Sozietatearen ekitaldia eta ekitaldi ekonomikoa urtero egingo da eta urte bakoitzeko abenduaren 31n itxiko da.

Elkarreak bere jarduera ekonomikoaren ondorioz, zerbitzugintzak barne, lortuko dituen onura eta irabazi guztiak, berariaz izango dira Elkarrearen helburuetarako eta ezin dira inoiz ez kideen eta ezta horien ezkontideen

edo ahaidetasun harreman baliokidearekin horiekin bizi diren pertsonen artean banatu. Halaber, onura edo irabazi horiek ezin zaizkie doan lagapenean eman irabazteko asmoa duten pertsona fisiko edo juridikoei.

BOSGARREN KAPITULUA

ESTATUTUEN ALDAKETA

41. artikulua.- Estatutuak Zuzendaritza Batzordearen ekimenez alda daitezke, baita horren erabakiaren bitartez ere, bertan inskribatuta dauden kideen erdiak eskatzen duenean. Nolanahi ere, Zuzendaritza Batzordeak gutxienez hiru kidek osaturiko ponentzia izendatuko du, horrek aldaketa-proiektu egokia idazteko, berak emandako jarraibideen arabera; horretarako, epe bat finkatuko da eta proiektua epe horren barruan amaitu beharko da.

42. artikulua.- Aldaketa-proiektua arestian adierazi den epe horretan idatzi ondoren, elkarteburuak egiten den lehenengo Zuzendaritza Batzordeko eguneko aztergaien zerrendan jasoko du; Batzordeak berori onetsi edo, bestela, Ponentziara itzuliko du, bertan berriro aztertzeko.

Onesten bada, Zuzendaritza Batzordeak egiten den hurrengo Aparteko Biltzar Nagusiko eguneko aztergaien zerrendan sartzea erabakiko du, edo halako biltzarra egiteko erabakia hartuko du horretarako.

43. artikulua.- Biltzarrerako deialdiarekin batera, estatutuak aldatzeko testua ere bidaliko da; kideek, horrela, bidezko emendakin guztiak bidali ahal izango dituzte idazkaritzara, eta horiek Biltzar Nagusiari jakinaraziko zaizkio, baldin eta horren bilkura egin baino zortzi egun lehenago badaude idazkaritzan.

Emendakinak edo zuzenketak banaka edo taldeka egin daitezke; idatzizkoak izango dira eta beste testuaren alternatiba edukiko dute jasota.

SEIGARREN KAPITULUA

ELKARTEA DESEGITEA ETA SOZIETATEAREN ONDAREA APLIKATZEA

44. artikulua.- Elkartea honako kasu hauetan desegingo da:

1. Kideek nahita, eta hori horretarako deituko den Biltzar Nagusian adierazi beharko da; gainera, bertaraturiko kideen edo horien ordezkoen gehiengo osoaren aldeko botoa beharko da.
2. Kode Zibileko 39. artikuluan ezarritako zergatien ondorioz.
3. Epaia baten bidez.

4. Aparteko Biltzar Nagusian baimendu beharko den bat-egite prozesuaren ondorioz.

45. artikulua.- Desegitea erabaki ondoren Elkartearen likidazioari ekingo zaio. Ondore horretarako Zuzendaritza Batzordeak egingo ditu Batzorde Likidatzailearen lanak.

46. artikulua.- Desegitea erabaki ostean Elkartek bere ohiko jarduerak bukatuko ditu eta likidaziorako eragiketak egiten hasiko da.

Likidatzaileek likidazioaren amaierako kontuan egingo dute, emaitzako aktibo garbiarekin eta egon dauden zorrak ordaindu ondoren.

47. artikulua.-



Sozietatearen ondasunak likidatu ostean Zuzendaritza Batzordeak Elkartearen ondasunen destinoa zehaztuko du. Ondasun horien destinoa elkartearen sorkuntza eragin zuten antzeko helburuekin edo horri lotuta dauden zioekin aplikatuko da eta soberakin horren destinoa ezin du indargabetu erakundeak irabaztekoa asmorik ez edukitzeak edo irabazteko asmorik ez duten erakunde edo izakiei emateak.

Era berean, gerakin hauek jasoko dituen entitatea irabazteko asmorik gabekoa eta gizarte izaerakoa izan beharko da BEZaren ondorioetarako.

